# SEMINARIOAREN EGUNA

2023KO MARTXOAREN 19/20



"Jaiki zaitez eta jarri bidean"

# OTOITZA

Jauna, bide ertzean bila nabil eta ez zaitut ikusten. Aurretik zoaz, bide erdian edota atzetik, zure herriko talde bati lagunduz.
Geratu zara, begiratu nauzu eta nire bihotzeko zalantzak onartu dituzu:
«Zeren bila zabiltza? Jaiki zaitez eta jarri bidean, hartu nire tokia».

Zenbat on egiten didan zure hitzak: Jaiki zaitez!
Nire nagitasuna eta norberekeria agerian uzten baititu: Jaiki zaitez!
Nire beldurrak hausten baititu: Jaiki zaitez!
Nire zalantzak argitzen baititu: Jaiki zaitez!
Jauna, zure hitzak salbatzen nau.
Jauna, zure hitzak sendotzen nau.
Jauna, zure hitzak argitzen nau eta bidera bultzatzen.

Jauna, irakats iezadazu multzoan joaten, senideen bihotzean suma zaitzadan.
Jauna, argi nazazu Ebanjelioa hots eginez aurretik joan nadin.
Jauna, jar nazazu azken tokian, zure errukia opari dezadan.

Jauna, emazkiguzu zure Bihotzaren araberako artzainak!
Zure ahotsaren ahots izango direnak, senideei esateko:
«Jaiki zaitez eta jarri bidean». Amen.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

COMISIÓN EPISCOPAL PARA EL CLERO Y SEMINARIOS
Subcomisión Episcopal para los Seminarios

Añastro, 1 · 28033 Madrid
seminarios@conferenciaepiscopal.es